Bigarrena.- Tolosako Udalak, "Albergue Zuloaga-Txiki" eraikuntza erabiltzeko baimena ematen dio Errefuxiatuei laguntzeko Euskadiko Batzordea & CEAR-Euskadi entitateari Errefuxiatuei ostaturik emateko, "arreta zerbitzu programa" garatzeko, hitzarmenaren xedean deskribatutako helburuarekin. Erabilpen eskubide hau, ondorengo arautegian dago oinarrituta: Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean, 86.2 artikuluan.

CEAR Entitateak ezin izango du erabili beste helburuetarako.

Hirugarrena.- Erabilera ahalmen honek prekariozko izaera izango du, gehienez ere, lau urteko iraupena izango du, sinatzen denetik kontaktzen hasita. Era berean, eraikuntza libre utzi beharko da Tolosako Udalak hala eskatzen badu

Laugarrena.- Urtero, udal teknikariak txostena egin beharko du, lokalek lehen klausulan adierazitako helburuen arabera erabilera izan dutela egiaztatzeko. Txostena negatiboa balitz, kontratu hau berehala deuseztatzeko arrazoia izango litzateke.

Bosgarrena.- Erabilera hau, doaneko izaera duenez gero, ez da inolako kanon ekonomikorik ordaindu beharrik izango.

Seigarrena.- Baimenduak kontratu honen ondorioz dituen eskubide eta betebeharrak ezin izango dira transferitu, ezta eskualdatu ere.

Zazpigarrena.- Baimenduaren kargura izango dira elektrizitate-kontsumo, ur, gas, zabor eta gainerakoengatik eragindako gastuak.

Zortzigarrena.- Baimenduaren ardurak izango dira lokala kontserbatzea eta zaintzea, eta egoki diren konponketa handi nahiz txikiak egitea hori horrela mantentzeko.

Udalak eskubidea izango du ikuskapenak egiteko baimenduak dituen eginbeharrak zuzen betetzeari dagokienez. Era berean, Udalak ahalmena izango du baimenduari kontratu honen, erabilaren eta legearen arabera betetzea dagokiona galdatzeko.

Bederatzigarrena.- Eraikuntzan ezin izango da egokitze-obra egin, salbu Tolosako Udalak idatziz baimenduak. Kasu honetan hobekuntza eta egin daitezkeen gastu guztiak utzitako eraikuntzaren mesederako izango dira eta Udalak ez du ordaindu beharrik izango inolako kopururik.

Hamargarrena.- Baimena dutenek erantzun egin beharko dute egiten duten jardueraren ondorioz, edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz egindako kalteengatik (dela pertsonen dela ondasunen egindakoak). Alde horretatik, Udal honi nahiz hirugarrengoei egindako kalteengatik erantzungo



TOLOSAKO
UDALA

dute. Horretarako, erantzunkizunezko poliza egin behar dute higieziinei, pertsonei edo hirugarren batzuei egindako kalteen aurrean erantzuteko -gutxieneko kopurua 300.000eurokoa izango da.

Hamakagarrena.- Baimenduak konpromisoa hartu du baimendutako eraikin horretan material kaltegarri, osasungaitz edo arriskutsurik ez gordetzeko, eta jarduerak eragin ditzakeen ondorio negatiboak eragozteko bidezko diren neurri zuzentzaileak hartzeko.

Hamabigarrena.- Erabilera hau amaitzean, baimenduak kontserbazio eta erabilera egoera egokian itzuliko du lokala.

Hamahirugarrena.- Helbideak errekerimendu eta jakinarazpen orotarako honako hauek dira: eraikuntza uzten duenaren aldetik: Tolosako Udala, Plaza Zaharra 6 B; eta baimenduaren aldetik: Calle del Cristo 9.bis (Bilbo).

Eta bat datozela adierazteko, hitzarmen hau sinatzen dute, ale bitan eta ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Tolosako Udala
Olatz Peon Ormazabal

CEAR-Euskadi
Patricia Bárcena Garcia

BEDERATZIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Idazkaritzari eta Gizarte Politikako Departamentuari.

3. ONARTZEA TOLOSAKO BEDAIO AUZOKO FRONTOIAREN ONDOKO KALEA BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUAREN ALDAKETA.

AURREKARIAK

I.- Tolosako udal ingeniariaren txostena, 2019ko martxoaren 1ekoa:

Txosten honen xedea da aztertzea Injelan SLk idatzitako *Bedaio auzoan frontoiaren ondoko kalea berrurbanizatzeko obra* egikaritzeko proiektua onargarria den.

Proiektu sortu berri izan arren, lehendik hasitako lanei jarraipena ematen die. Adibidez:

- Abaetxe eraikineko azpi-berritze eta sendotzea egin zen 2014. urtean. 274.000 € inguruko aurrekontua izan zuen.
- Eliza ingurua eta elizaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide hasieraren arteko eremua txukundu zen 2015. urtean. 61.000 € inguruko aurrekontua izan zuen.



Proiektua hasi aurretik, Udalak hormaren zimendua non koka zitekeen aztertzeko, bi kata egin zituen, proiektuan hormaren dimentsio egokiak definitzeko aukera izan zezaten, eta, horrela, lanak gauzatzean, aurrekontua errealitatearekin bat etor zedin.

2018ko urriaren 3an, esleipen prozedurari hasiera eman zitzaion lurren kudeaketa bukatu ondoren. 2018ko abenduaren 27an, berriz, Udalak esleipen prozedura hutsik utzi zuen.

Kontsulta eta azterketa batzuk egin ondoren, proiektuaren aurrekontua igotzea erabaki zen, proiektuaren gainontzeko edukia bere horretaz utzi zelarik.

Azken proiektu hori da esleipen berrian atera nahi dena.

II. EGUNGO EGOERA

Proiektuak gaur egungo egoera jasotzen du:

La calle objeto del proyecto es una calle de anchura variable entre 4 y 4,5 metros que se pretende ampliar. En la actualidad, la calle se encuentra delimitada por un muro de contención en el lado derecho de la calle según se accede al entorno urbano de Bedaio, y por una pequeña zona verde en talud con un establo en la parte superior por el lado izquierdo.

A lo largo de la calle nos encontramos con varias redes de servicio. A pie del talud existe una tubería de agua potable de PEAD Ø63mm y una red de alumbrado público aéreo sustentado sobre dos postes de hormigón. Frente a la casa "Elizetxea" existe una canalización de saneamiento que cruza la calle objeto del proyecto. Estos servicios van a verse afectados durante la ejecución de la obra.

III. EGOKITZE PROPOSAMENA

Proiektuaren helburua da errepidea zabaltzea, auzotar eta kanpotarrei zerbitzuak eskuragarri jartzeko; horrenbestez, aparkalekuak irabazten dira eta erabilpen publikoa duten eraikinak argiztapen berriarekin lotzen dira.

Proposatutako proiektu honetan lanak egiteko ur-hornidurako sarea zaharberritzea ezinbestekoa da, gaur egun dagoen hodiak hormen zimenduen trazadura bera baitute. Horrekin batera, gaur egun dagoen argiteria eskasa hobetzen da, eraikin eta zerbitzuen arteko lotura osatuz.

Eraikin horiek auzotar guztiek dituzten zerbitzuak jasotzen dituzte: auzotarren elkarteak, pilotalekua, eliza, eta taberna-jatetxea.



TOLOSAKO
UDALA

IV. DOKUMENTAZIOA

Proiektuak, besteak beste, hurrengo dokumentazioa jasotzen du:

Documento nº 1.- MEMORIA

Memoria

Anejo nº 1.- Obras de fábrica

Anejo nº 2.- Plan de obra

Anejo nº 3.- Programa de Control de Calidad

Anejo nº 4.- Estudio de Gestión de Residuos de Construcción y Demolición

Anejo nº 5.- Estudio de Seguridad y Salud

Documento nº 2.- PLANOS

Nº 1.- Situación. Estado actual.

Nº 2.- Estado Actual de las redes de servicio.

Nº 3.- Planta General.

Nº 4.- Secciones transversales. (2 hojas)

Nº 5.- Secciones tipo y detalles.

Nº 6.- Muro de contención.

Nº 7.- Redes de saneamiento, agua potable y alumbrado público. Planta.

Nº 8.1.- Detalles de las redes de servicio. Red de saneamiento.

Nº 8.2.- Detalles de las redes de servicio. Red de alumbrado.

Documento nº 3.- PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TECNICAS PARTICULARES

Documento nº 4.- PRESUPUESTO

Mediciones

Cuadro de Precios nº 1

Cuadro de Precios nº 2

Presupuesto

V. EPEA

Lanak egiteko aurreikusitako epea 4 hilabetekoa da.



TOLOSAKO
UDALA

Lanen banaketa eta ordena ondorengo diagraman jasotzen da:

Injelan, s.l.

OBRA:	PROYECTO DE REURBANIZACIÓN DE LA CALLE JUNTO AL FRONTÓN EN EL BARRIO BEDAIO DE TOLOSA			
	MESES		MESES	
OPERACIONES	1	2	3	4
MOVIMIENTO DE TIERRAS				
MUROS				
AGUA POTABLE				
SANEAMIENTO				
ALUMBRADO PUBLICO				
PAVIMENTACION				
REMATES DE URBANIZACIÓN				

VI. DIRULAGUNTZA

2018ko urtarrilaren 18an argitaratu zen Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren agindua Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian. Bertan, G4, G5 eta G6 gisa sailkatutako landa eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzetarako deialdiaren baldintzak zehazten ziren.

Deialdian ondorengo jasotzen da:

Agindu honetan jasotako laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko aurrekontu orokorretan horretarako ezarrita dauden kredituetatik etorriko dira. Baliabide ekonomiko horiek, guztira, 5.750.000 eurokoak dira; horietatik, 2.300.000 euro 2018ko ekitaldirako ordainketa-kredituari dagozkie, eta, 3.450.000, 2019ko ekitaldirako konpromiso-kredituari, diru-laguntza lerroetan banaturik, era honetan:

Jarduketak	2018ko funtsak	2019ko funtsak	Guztira
Bizi-kalitatea hobetzea	2.070.000	3.105.000	5.175.000
Ondarea - Turismoa	230.000	345.000	575.000
GUZTIRA	2.300.000	3.450.000	5.750.000

Tolosa Udalak erabaki zuen deialdi horretara aurkeztea *Bedaio auzoan frontoiaren ondoko kalea berrurbanizatzeko* proiektua. 2018ko abuztuaren 2an eskatutako laguntza jaso zelako ebazpena iritsi zen. Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar politiketako zuzendariak igorri zuen idatzian horrela jakinarazi zen.



Ondorengo kopuruekin lanen gauzatzea laguntzea ebatzi zen:

2018	2019
36.567,83 €	54.851,75 €

Ebazpenean jarduera gauzatzeko epea 2019ko abenduaren 31n amaitzen dela jasotzen da, eta hala badagokio, 2018ko urtarrilaren 2ko Aginduaren hamabosgarren ebazpen-zatiko hirugarren puntuan ezarritako gehienezko epeaz luzatzeko aukera aipatzen da.

VII. AURREKONTUA

Proiektua osoa gauzatzeko inbertsioa 173.142,48 €-koa izatea aurreikusten du, BEZa barne, proiektuak. Esleipen prozesuak kopuru hori zehaztuko du. Bestalde, kopuru horretan ez dira sartu proiektuaren kostua, obra zuzendaritza...

VIII. ESLEIPEN PROZEDURA

Esleipen prozesua hasi aurretik, lurren erabilgarritasuna jasotzen duen hitzarmena sinatu du Udalak. Eraiki beharreko 69 m-ko hormak jabetza pribatua lanak egitea eskatzen du.

Baldintza pleguetan ondorengo puntuak hartu daitezke kontuan:

- Prezioaren hobekuntza.
- Obren egikaritze-epari buruzko plangintza. Bereziki, bizilagunei sortutako eragina ahal den neurrian txikitzeko hartuko diren neurrien aurreikuspena.

IX. PROPOSAMENA

Ondorioz, aipaturiko helburuak kontuan izanik, adierazten dut arazorik ez dagoela *Tolosako Bedaio auzoan frontoiaren ondoko kalea berrurbanizatzeko* obrak egikaritzeko proiektua onartzeko.

Proiektu osoaren aurrekontua 173.142,48 € dira, honela banatuta: prezioa: 173.142,48 €, horietatik, 143.092,96 € printzipalari dagozkio eta 30.049,52 € % 21eko BEZari.

Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariaren proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Injelan enpresak idatzitako “BEDAIO AUZOAN FRONTOIAREN ONDOKO KALEA BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUA”.



Proiektu horrek aurreikusten dituen lanen aurrekontu balioetsia 173,142,48 €-koa da, % 21eko BEZa barne; horietatik, 143.092,96 € printzipalari dagozkio eta 30.049,52 € % 21eko BEZari.

BIGARRENA.-Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Hirigintza Departamentuari.

4. ONARTZEA TOLOSAKO BEDAIO AUZOKO FRONTOIAREN ONDOKO KALEA BERRURBANIZATZEKO OBREN KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, ETA LIZITAZIO-JARDUNBIDEARI HASIERA EMATEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako Bedaio auzoan frontoiaren ondoko kalea berrurbanizatzeko obra.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentua.
Espedientea:	2019OASI0001

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- Aurrekariak

Lehena.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko martxoaren 12an egindako bilkuran, besteak beste, aho batez onartu zuen Tolosako Bedaio auzoan frontoiaren ondoko kalea berrurbanizatzeko proiektua. Proiektuarekin batera, ezinbestekoa den zuinketa-akta jaso zen espedientean, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laburbildurik, proiektuaren helburuak ondorengo hauek ziren:

- Auzotar eta kanpotarrei zerbitzuak eskuragarri jartzeko errepidea zabaltzea eta, horrenbestez, aparkalekuak irabaztea; honela, erabilpen publikoa duten eraikinak argiztapen berriaz lotzen dira.
- Ur-hornidurako sarea berritzea.
- Gaur egun dagoen argiteria eskasa hobetzea, eraikin eta zerbitzuen arteko lotura osatuz.



TOLOSAKO
UDALA

Bigarrena.- SPKLren 232. artikuluan hau xedatzen da: “*Obren sailkapena. 1. Proiektuak egiteko, talde hauetan sailkatuko dira obrak, objektuaren eta izaeraren arabera:*

a) Lehen ezarpeneko obrak, eraberritze-obrak, zaharberritze-obrak, birgaitze-obrak edo konponketa handiko obrak.

b) Konponketa errazeko obrak.

c) Kontserbazio-obrak eta mantentze-obrak.

d) Eraispen-obrak.

...

Beraz, aurrekoa aintzat harturik, proiektaturiko lanak, **eraberritze-obrak** direla ondorioztatu da, SPKL 232.1 artikuluan xedatutako ondorengo hauek kontuan hartuta:

- Obrak ez dira eraikin berriak, SPKL bere 232.2 artikuluan hau xedatzen baitu: *Lehen ezarpeneko obrak ondasun higiezinak sortzeko dira.*

- Obrak ezin dira kalifikatu konponketa gisa, SPKL bere 232.4 artikuluan xedatutakoaren arabera: *4. Konponketa-obrak, berriz, ondasun higiezin batean ustekabearen edo halabeharrez sortutako kalteak konpontzeko beharrezkoak direnak dira. Funtsean egitura euskarriari eragiten badiete, konponketa handikotzat joko dira, eta, bestela, konponketa errazeko obratzat.*

- Obrak, SPKL bere 232.5 artikuluan xedatutakoaren arabera: *Kalteak denboran zehar gertatzen badira, ondasunaren erabileraren erabileraz, haiek konpontzeko obrak kontserbaziokoak izango dira. Mantentze-obrek kontserbazio-obren izaera bera edukiko dute.* Beraz, egingo diren lanak erabileratik sorturiko mantentze soila gainditzen dutenez, kontserbaziokoak ezin dira izan.

- Obrak ezin dira kalifikatu zaharberritze gisa, SPKL bere 232.6 artikuluan xedatutakoaren arabera: *6. Zaharberritze-obrak eraikuntza bat konpontzeko egiten dira, haren estetikari, balio historikoari eta funtzionaltasunari eutsiz.*

- Obrak ezin dira kalifikatu birgaitze gisa, SPKL bere 232.7 artikuluan xedatutakoaren arabera: *7. Birgaitze-obrak eraikuntza bat konpontzeko egiten dira, haren estetikari eta balio historikoari eutsiz, baina eraikuntzari beste funtzionaltasun bat emanez; funtzionaltasunak bateragarria izan behar du higiezinaren jatorrizko elementuekin eta balioekin.* Hemen xehetasuna “eraikuntzari beste funtzionaltasun bat emanez” kontzeptuan dago, egingo den obra ez baitio funtzionaltasun berri hori emango eraikinari.

- Obrak eraberritze-obrak dira, SPKL bere 232.3 artikuluan xedatzen baitu: *3. Eraberritzearen kontzeptu orokorrean, hauek sartzen dira: aurrez dagoen ondasun higiezinaren bat handitu, hobetu, eguneratu, egokitu, moldatu eta indartzeko egindako obra guztiak.*

Beraz, onarturiko proiektua aztertu ondoren, eta SPKLren 231. eta 232. artikuluetan xedatutakoa kontuan izanik, esan daiteke eraberritze-obra dela Tolosako Bedaio auzoan



frontoiaren ondoko kalea berrurbanizatzeko obra. *Horretarako, egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak organo eskudunaren onespenerako jartzen ditu aipaturiko kontratuari dagokion espedientea, jarraian jasotako txostenaren eta proposamenaren arabera.*

Hirugarrena.- 2018ko abenduaren 20an, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak huts deklaratu zuen urte bereko azaroaren 14an onartutako lizitazioa, ez baitzen eskaintzarik aurkeztu proposamenak aurkezteko epean.

3.- Kontratazio-espedientea, kontratuaren izaera eta kaudimena

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumen Departamentuko arduradunak egindako kontratazio-proposamena.
- Proiektua: Memoria, Preskripzio Teknikoen Orria eta Aurrekontua.
- Administrazio-Baldintza Partikularren Plegua.

Halaber, espedientea osatu beharko da kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikuluan a) atalean xedaturikoarekin bat, obra kontratua, hain zuzen ere, aipatu Legearen 13. artikuluan xedaturikoaren arabera. Izan ere, SPKLren 13.1 artikuluan araututakoaren arabera, obra kontratuaren xedea, I. Eranskinean aurreikusitako lanen bat exekutatzeko izango dela ikusirik, burutu nahi diren lanak aipaturiko Eranskinaren 45.21 atalean sailkaturikoak agertzen dira: *“construcción general de edificios y obras singulares de ingeniería civil (puentes, túneles, etc.).”*

Bestalde, obra kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehen: SPKLren 99.3 artikulua hau xedatzen du loteetan banaketari buruz: *“3. Kontratuaren izaerak edo objektuak horretarako bidea ematen duten guztietan, atal guztiak modu independentean gauza daitezela aurreikusi beharko da, sortaka zatituta. Sortak erreserbatu ahalko dira, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren objektua sortaka ez zatitzeko horretarako arrazoi egokiak daudenean –espedientean behar bezala zehaztu beharko dira horiek–, salbu eta obra-emakidako kontratuetan. Nolanahi ere, honako hauek joko dira baleko arrazoitzat kontratuaren objektua sortaka ez zatitzea justifikatzeko:*

a) Kontratuaren objektua sortaka zatitzeak lehia justifikaziorik gabe murrizteko arriskua ekartzea. Irizpide hori aplikatzeko, kontratazio-organoak alde aurretiko txostena eskatu



beharko dio lehiaren defentsarako kasuan kasuko agintaritzari, inguruabar hori gertatzeari buruzko iritzia eman dezan.

b) Kontratuaren objektuan jasotako prestazioak modu independentean emateak zailtasunak ekartzea kontratua ikuspuntu teknikitik zuzen egikaritu dadin; edo kontratua zuzen ez egikaritzeko arriskua etortzea haren objektuaren izaeratik, zeren eta berekin baitakar prestazioak emateko koordinatu beharra eta hori ezinezko gerta baitaiteke sortaka zatitzearen eta hainbat kontratistaren artean gauzatzearen ondorioz. Bi egoera horiek, kasuan-kasuan, behar bezala justifikatu beharko dira espedientean.”

Kontuan izanda kontratu honetan aurreikusitako balio zenbatetsia **143.092,96 eurokoa** dela, kontratazio honetan ez da loteetan banaketarik aurreikusi, eta hori justifikatu da espedientean, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta.

Bigarrena.- Hori horrela, nahiz eta obra kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19. artikuluan arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 20.1 artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (5.548.000 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurtso berezia ezin izango da tartekatu, aipatu Legearen 44.1a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 3.000.000 euroko kopurua ez duelako gainditzen.

Hirugarrena.- Bestalde, Baldintza Administratiboen Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL-k bere 86., 87., eta 88. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Kasu honetan, kontuan hartu behar da kontratuaren balio zenbatetsiak ez duela gainditzen 500.000 euroko kopurua. Beraz:

- Enpresa berriek parte har dezakete lizitazioan (88.2 artikulua).
- Lizitatuzaileen gaitasunari dagokionez, lizitatuzaileen sailkapena ez da nahitaezkoa izango (77.1.a) artikulua). Hala ere, sailkapenak, gaitasuna eta kaudimena egiaztatuko ditu botere esleipendunaren aurrean (artikulu bera, bigarren paragrafoa)

Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu Legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: 4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen



abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera. 210. artikulua 4. apartatua eta 243. artikulua 1. apartatua ezarritakoa betetzeari utzi gabe, Administrazioak obra-ziurtagiriak eman behar ditu, edo ondasunak edo zerbitzuak kontratuan hitzartutako moduan entregatu edo eman direla egiaztatzen duten agiriak, haiek egiaz entregatu edo eman ondorengo hogeita hamar egunen barruan. Edonola ere, kontratistak ez badu aurkezten faktura dagokion administrazio-erregistroan hogeita hamar eguneko epean faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, interesen sorrera ez da hasiko harik eta hogeita hamar egun igarotzen diren arte faktura zuzen aurkezten duen egunetik, baldin eta Administrazioak ez badu fakturarekiko onarpenik eman, hala badagokio ere, eta ez badu dagokion ordainketarik egin.

4.- Espediente mota

SPK Legeak bere 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: “geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditenteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditenteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “*hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...*”

Kasu honetan, ez da Legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik, beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio-Baldintza Partikularren Pleguaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

5.- Kontratuaren ezaugarriak

Obra kontratua gauzatzeko gehienez **LAU HILABETE** ezarri dira, zuinketaren egiaztapen akta sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lizitazio prezio orokorra ondoko hau izango da: 173.142,48 euro; horietatik, 143.092,96 € printzipalari dagozkio eta 30.049,52 euro BEZari.

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea kontratuaren xede diren lanak udal aurrekontu-partida honen kargura finantzatzeko direla: **0700.601.07.414.00**



Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeak eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

6.- Esleipena egiteko jardunbidea eta modua

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio-irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta IV. eranskineko zerbitzu bereziak emateko kontratuetan; izan ere, horiek azken prozedura horren arabera adjudikatuko dira. 168. artikuluan ezarritako kasuetan, publizitateari gabeko prozedura negoziatua erabili ahalko da; 167. artikuluan aurreikusitakoetan, lehia-elkarrizketara edo lizitazio negoziatura jo ahalko da, eta, 177. artikuluan aipatutakoetan, azkenik, berrikuntzarako elkartzeko prozedura erabili ahalko da.*

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide ireki sinplifikatua** erabiltzea, gardentasunaren, publizitatearen, eraginkortasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio-Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta bere I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak, hain zuzen ere. Kasu honetan, balio-judizioetan oinarritutako irizpideak % 20 dira; beraz, SPKLren 159.1.b) artikuluan (balio-judizioetan oinarritutako irizpideak % 25 ez gainditzea) xedaturikoa bete da.

Azkenik, berme-epari dagokionez, SPK Legearen 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, 6 hilabetetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez duelako 1.000.000 €-ko kopurua gainditzen. Kasu honetan, aipatu Legearen 243.3 atalean xedaturiko kasu bereziaren aurrean gaudela iradoki du Idazkari honek.

7.- Administrazio-Baldintza Partikularren Plegua eta Baldintza Teknikoen Orria

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio-Baldintza Partikularren Plegua eta Baldintza Teknikoen Orria aztertu dira, SPK Legearen 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.



TOLOSAKO
UDALA

8.- Kontratazio-organoa

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPK Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, printzipioz, eskumena alkate-udalburuarena da. Hala ere, Tolosako Udalaren kasuan, Udal honetako alkate-udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontuan hartuz, eskumena Tolosako **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokiola ondorioztatu du idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPK Legearen 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariaren proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Bedaio auzoan frontoiaren ondoko kalea berrurbanizatzeko Hirigintzako buruak egindako txostenean aurreikusitako obrak kontratatzeke espediente.

BIGARRENA.- Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua onartzea eta lizitazioari hasiera ematea, ondokoaren arabera: Lizitazio prezio orokorra 173.142,48 eurokoa da; horietatik, 143.092,96 € printzipalari dagozkio eta 30.049,52 euro BEZari.

HIRUGARRENA.- Kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko gehieneko epea **lau hilabetekoa** izatea, obraren zuinketa egiaztatzeke akta sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

LAUGARRENA.- Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio-Baldintza Partikularren Plegua eta Baldintza Teknikoen Orria.

BOSGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide ireki sinplifikatua) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako Udaleko kontratugilearen profilean,



lizitatzailleek beren proposamenak **hoge**i egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzaitzari jakinaraztea.

5. ONARTZEA AKATS MATERIAL BATEN BIGARREN ZUZENKETA EGITEA, 2018KO EKAINAREN 4AN GOBERNU BATZARRAK BEHIN BETIKO ONARTUTAKO TOLOSAKO "12.4 SAN FRANTZISKO 32-34-36 AZPIESPARRUKO EXEKUZIO-UNITATEKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA DELA ETA.

1. AURREKARIAK.

- Tolosako "12.4 San Frantzisko 32-34-36 azpiesparruko exekuzio unitateko Kontzertazio Batzordeak", 2017ko urriaren 18an, hasierako onarpena eman zion unitateko birpartzelazio proiektuari.

Proiektua jendaurrean jarri zen 2017ko urriaren 26an Gipuzkoa Aldizkari Ofizialean eta egun bereko Noticias de Gipuzkoa egunkarian argitaratuta.

- Jendaurreko epean hiru alegazio sartu ziren Udal Erregistroan.

- 2018ko otsailaren 5ean, Jose Angel Chapartegui Izaguirrek, "12.4 San Frantzisko 32-34-36" Azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Batzordearen izenean eta ordezkartzan, aurkeztutako alegazioei erantzuten zien idatzia aurkeztu zuen.

- 2018ko otsailaren 28an, berriz, Jose Angel Chapartegui Izaguirrek, "12.4 San Frantzisko 32-34-36" Azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Batzordearen izenean, birpartzelazio proiektu zuzendua aurkeztu zuen bere behin betiko onarpenerako.

- 2018ko martxoaren 19ko Gobernu Batzarrak erabaki zuen ez onartzea "12.4 San Frantzisko 32-34-36" Azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Batzordeak 2017ko urriaren 18an hasierako izaeraz onartutako birpartzelazio proiektua eta agindu zuen berau udal zerbitzuek ezarritako baldintzetara egokitzeko, birpartzelazio proiektua berriro ere jendaurrean jarri beharko zelarik.



TOLOSAKO
UDALA

- 2018ko apirilaren 5ean, Kontzertazio Batzordeak berriro ere hasierako izaerarekin onartu zuen birpartzelazio proiektu zuzendua, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zuen 2018ko apirilaren 13an eta hilabeteko epean jendaurrean jarri.
- Jendaurrean egondako denboran ez zen alegaziorik aurkeztu eta, ondorioz, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, 163.3.a artikuluan ezarritakoari jarraiki, Tolosako Udalak birpartzelazio proiektua behin betiko izaeraz onartu zezan eskaera aurkeztu zuen Jose Angel Chapartegui Izaguirrek 2018ko maiatzaren 22an.
- 2018ko maiatzaren 31n, Udaleko Hirigintza teknikariak aldeko txostena egin zuen.
- 2018ko ekainaren 4an, Gobernu Batzarrak behin betiko onespena eman zion (GAO 2018-06-20).

Aurrekarietan adierazi bezala, 2018ko ekainaren 4an Gobernu Batzarrak behin betiko onespena eman zion "12.4 SAN FRANTZISKO 32-34-36" azpiesparruko exekuzio unitateko Kontzertazio Batzordearen Birpartzelazio Proiektuari.

2019ko urtarrilaren 31n, Jose Angel Chapartegui Izaguirre jaunak, exekuzio unitate horretako Kontzertazio Batzordearen izenean, akats material baten zuzenketa eskatu du. Izan ere, sestra azpiko eraikigarritasunari dagokionez, kontraesan bat dago onartutako proiektuan: batetik, ondoriozko partzela eraikigarriaren balorazioa egiterakoan, sestra azpiko eraikigarritasuna 1.140 m²(t)-koa dela esaten da; bestetik, ondoriozko partzelaren deskribapenean (a.20.1/12.4 partzelan), sestra azpiko eraikigarritasuna 3.545 m²(t)-koa dela zehazten da.

Honen aurrean, akats material baten zuzenketa eskatzen du interesdunak, sestra azpiko eraikigarritasuna 1.140 m²(t)-koa izan dadin 100. orria aldatzeko eskatuz.

39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 109.2 artikuluan honakoa jasotzen du:

"109. artikulua. Egintzak errebokatzea eta okerrak zuzentzea.

2. Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".



Hori horrela, 2019ko otsailaren 4an, Gobernu batzarrak egindako bilkuran honako hau erabaki zuen :” 2018ko ekainaren 4an Gobernu Batzarrak behin betiko onartutako Tolosako “12.4 San Frantzisko 32-34-36 azpiesparruko exekuzio unitateko Birpartzelazio Proiektuko akats material baten zuzenketa egitea. Zehazki, onartutako Proiektuko 100. orria ordezkatzeara proposatzen da, sestra azpiko eraikigarritasunak 3.545 m²(t)-koa izan ordez 1.140 m²(t)-koa izan behar baitu.”

Orain, berriz, 2019ko martxoaren 13an, sarrera-erregistroko 2353 zenbakia duen idatziaren bidez, Jose Angel Chapartegui Izaguirre jaunak, exekuzio unitate horretako Kontzertazio Batzordearen izenean, akats material baten bigarren zuzenketa eskatu du. Eskatutako zuzenketa proposamen honi atxikituta gelditzen da I. eranskin gisa.

Beraz, hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariaren proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2018ko ekainaren 4an Gobernu Batzarrak behin betiko onartutako Tolosako “12.4 San Frantzisko 32-34-36 azpiesparruko exekuzio unitateko Birpartzelazio Proiektuko akats material baten bigarren zuzenketa hau egitea:

“La parcela “a.20.1/12.4” figura con una superficie de mil ciento setenta y tres metros con noventa y ocho decímetros cuadrados (1.173,98 m² s) de suelo, cuando debe figurar con una superficie de mil ciento setenta y tres metros con noventa y cinco decímetros cuadrados (1.173,95 m²s) de suelo, conforme a los planos 05 “Parcelas Resultantes” y 06 “Superposición” del Proyecto de Reparcelación.

Por su parte, la parcela “f.10.1/12.4” figura con una superficie de trescientos noventa y seis metros con setenta y nueve decímetros cuadrados (396,79 m²s) de suelo, cuando debe figurar con una superficie de trescientos noventa y ocho metros con cincuenta y dos decímetros cuadrados (398,52 m² s) de suelo.

La corrección de esta diferencia mínima, negativa de tres decímetros cuadrados de suelo en la parcela “a.20.1/12.4”, y positiva de un metro con setenta y tres decímetros cuadrados (1,73 m² s) de suelo en la parcela “f.10.1/12.4”, es decir, una diferencia de un metro con setenta decímetros cuadrados (1,70 m² s) de suelo en la suma total de las nuevas parcelas del (sub)ámbito “12.4 Paseo San Francisco 32-34-36” es necesaria, al objeto de que la suma de la superficie de la Unidad de Ejecución que conforman las fincas aportadas (1.572,47 m²s), coincida con la suma de la superficie de las parcelas de resultado, que, por error del Proyecto de Reparcelación, ascienden a 1.570,77 m² s .”



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Ebazpen hau jakinaraztea Kontzertazio Batzordeari eta Hirigintza Departamentuari.

6. ONARTZEA TOLOSAKO BABARRUN KOFRADIARI 2018. URTEAN DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEKO HITZARMENAREN KITAPENA

Aurrekariak:

Tolosako Udalak interesa dauka Tolosako babarrun beltzaren kontsumoa eta haren gaineko ezagutza zabaltzeko eta, helburu hori lortzeko, 2018ko uztailaren 16ean hitzarmen bat sinatu zuen Tolosako Babarrun Kofradiarekin.

Hitzarmen honen eremuan ondorengo ekintzak aurreikusten ziren:

- bideo promozionala.
- elkarlana ea promozioa beste entitateekin.
- Ereite Ekitaldia.
- Babarrun Festa.
- Bestelako gastuak (kapituluaeren bisitak eta entitateren kudeaketa gastuak).

▮ Programaren garapena:

Tolosako Babarrunaren Kofradiaren proiektua hitzarmenean zehaztutakoaren arabera garatu da.

▮ Ordainketak:

Sinatutako hitzarmenean Tolosako Udalak programa horretarako 5.700,00 € jartzen dituela zehazten da eta 1100 481.01. 43100 partidaren era nominatiboan jasota daude.

Ordainketa ondorengo eran izango dela zehazten da:

- % 50, hitzarmena sinatu eta organo eskudunak erabakiaren jakinarazpenarekin batera.
- Beste % 50a, egindako gastua justifikatutakoan.

▮ Zuriketa:

2019ko urtarrilaren 30ean Tolosako Babarrun Kofradiak aurkeztu ditu hitzarmenaren zuriketarako beharrezkoak diren memoria, gastuen ziurtagiriak eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak.



TOLOSAKO
UDALA

Bere ekintzen sarrera eta gastuen memoria aurkezten dute, eta urteko gastua 10.307,05 €-koa izan bada ere, 9.233,25 €-ko gastua justifikatu dute dagozkien agiriekin.

Azaldutakoa kontuan izanik, eta udal teknikariaren proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ontzat ematea aurkeztutako likidazioa, eta onartutako dirulaguntzaren % 50eko bigarren ordainketa egitea, guztira, 2.850,00 €, honako partida honetatik: 1100 481.01. 43100.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Merkataritza, Feriak eta Turismo Departamentuari.

7. 7/2019 FAKTURA-ZERRENDA.

Kontuhartzaitzak **7/2019** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa **15.430, 90 €** da.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-7/2019 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

-

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA



TOLOSAKO
UDALA

I. ERANSKINA

ONARTZEA 2018KO EKAINAREN 4AN GOBERNU BATZARRAK BEHIN BETIKO ONARTUTAKO TOLOSAKO "12.4 SAN FRANTZISKO 32-34-36 AZPIESPARRUKO EXEKUZIO UNITATEKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUKO AKATS MATERIAL BATEN BIGARREN ZUZENKETA EGITEA.